



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA,
*****JAUNAK ETA *****JAUNAK BIZKAIKO BOXEO
FEDERAZIOAREN BATZAR NAGUSIRAKO HAUTAGAIEN BEHIN-
BEHINEKO ZERRENDAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOAK EZ
ONARTZEKO DENA.**

Espediente-zenbakiak: 31/2016 eta 32/2016

AURREKARIAK

Lehena.- 2016ko urriaren 31n, ***** jaunak eta ***** jaunak, bi errekurtsu jarri zituzten *“hauteskunde-batzordearen 03/2016 zenbakiko aktaren aurka. Akta horretan Bizkaiko Boxeo Federazioaren Batzar Nagusirako aurkeztutako hautagaiak behin-behineko onartu ziren, eta hamabost hautagai behin-behineko onartzea erabaki zen, hainbat estamentutan banatuta: klubak, kirolariak, teknikariak eta epaileak (...)”*.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu horien izapidetzea onartzea eta Bizkaiko Boxeo Federazioari espedienteak eskatzea erabaki zuen. Era berean, alegazioak egiteko izapidea eman zion, egokitzat jotzen dituzten froga-eginbideak aurkezteko aukera emanaz.

Hirugarrena.- 2016ko azaroaren 24an Bizkaiko Boxeo Federazioak bidalitako espedientea jaso da, baita alegazio-idazkia ere.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK



Lehena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hauek aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, 138.b) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.b) artikuluan.

Bigarrena.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 57. artikuluan ezartzen duena aplikatuko da:

«57. artikulua. Metatzea.

Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo interesdunaren eskariz, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu».

Kasu honetan, begien bistakoa da bi errekurtsioen artean zuzeneko lotura dagoela, bai mamiarengatik (gai bera da), bai moduarengatik (bi errekurtsioak hitzez hitzeko kopia dira, eta biak batera aurkeztu ziren).

Horrenbestez, horiek bateratzea erabaki da, bi errekurtsioak erabaki honen bitartez erantzuteko helburuarekin.

Hirugarrena.- Eztabaidaren xedea Batzar Nagusirako hautagaien behin-behineko zerrenda da. Zehazki, errekurtsogileek uste dute hautagaitzak behin-



behineko gisa onartu zitzaizkien klubetako hiruk (Bizkaivent, Arrigobox eta Fekon) “ez dituztela betetzen federazioaren estatutuei buruzko 17. artikuluan eskatzen diren gutxieneko baldintzak”; horregatik, hautagaitza horiek ezin dira onartu.

Laugarrena.- Bizkaiko Boxeo Federazioaren hauteskunde-batzordearen lehendakariak, idazkariak eta bokalak egindako txostenean adierazten da, alde batetik, aipatutako klubek “betetzen dituztela 10. artikuluan ezarritako baldintza guztiak (...) eta hautagaitza garaiz eta ezarritako moduan aurkeztu zutela (...)”. Bizkaiko Boxeo Federazioaren Hauteskunde Arautegiaren 10. artikuluari buruz dihardute.

Bestalde, beste gai batzuen artean, eta hemen interesatzen zaigunari dagokionez, txosten horretan honako hau adierazten da:

“Hauteskunde-batzorde honen ustez, (...) ezin da errekurtsio bat Kirol Justiziako Euskal Batzordean aurkeztu, baldin eta aurretik, eta ezarritako epean, dagokion errekurtsioa jarri ez bada lehenengo instantzian hauteskunde-batzordean, batzorde horrek errekurtsio horri buruzko ebazpena eman ahal izateko”.

Bosgarrena.- Hain zuzen ere, Hauteskunde Arautegiari buruzko 11. artikuluen 6. eta 9. zenbakietan aurreikusten denaren arabera:

*“11.6 Hautagaien behin-behineko zerrenden kontrako aurkaratzeak Bizkaiko Boxeo Federazioan aurkeztuko dira zuzenean, **hauteskunde-batzordeari zuzendutako** idazkiaren bidez edo faxaren bidez edo postaz bidaliz Bizkaiko Boxeo Federazioaren Idazkaritza Nagusira, bi egun balioduneko epean.”*



“11.9 Aurkaratzeak badaude, hauteskunde-batzordeak ebatziko ditu aurkaratze horiek hauteskunde-egutegian ezarritako epeetan, eta hortik aurrera behin betiko onartuko ditu zerrendak, hautagaiak izendatuko ditu eta hautagaien behin betiko zerrendak Bizkaiko Boxeo Federazioaren iragarkitaulan jarriko ditu, baita Bizkaiko Boxeo Federazioaren web-orrian ere, baldin eta badago.”

Hortaz, hauteskunde-batzordeak arrazoia dauka Batzar Nagusirako hautagaien behin-behineko onarpena Kirol Justiziako Euskal Batzordean zuzenean aurkaratu ezin dela esaten duenean, organo horrek ez baitauka horretako eskumenik, hauteskunde-batzordeak berak baitauka horri buruzko ahalmena.

Beraz, ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, 138.b) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.b) artikuluan *“kirol-federazioen hauteskunde-batzordeen erabakiak”* aipatzen direnean, ulertu behar da aipamen horiek behin betiko erabakiei buruzkoak direla, horiek baitira eratorritako organoak benetan adierazi nahi dituenak, ez, ordea, behin-behineko erabakiak, azken horiek akatsak kentzeko soilik baitira behin betiko erabakiak hartzeari begira.

Behin-behineko erabakiak edo ebazpenak izapide hutseko egintzetatik kataloga daitezke, gehienez ere. Eta gogora dezagun administrazio-legeriak (besteak beste, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 112.1 artikulua) eragozten duela izapidetzeko egintza horiek banaka errekurritzea goragoko organoetan, salbu eta ezaugarri batzuk badaude (gaiaren mamia zuzenean edo zeharka erabakitzen dutenak, prozedurarekin jarraitzea ezinezkoa dela erabakitzen dutenak edo eskubide edo interes legitimoekiko defentsa-gabezia edo kalte konponezina eragiten badute), baina ezaugarri horiek ez dira azaltzen hemen proposatutako kasuan.



Azken batean, errekurtsogileek ez diote jarraitu Hauteskunde Arautegian aldez aurretik ezarrita dagoen aurkaratze-bideari, zeinak behartzen baitzuen behin-behineko zerrendei buruzko errekurtsua aurkeztera hauteskunde-batzordean bi egun balioduneko epean, eta epe hori ere ez da bete, zerrenda horiek 2016ko urriaren 26an argitaratu baitziren eta urriaren 31ra bitarte ez baitira aurkaratu.

Horrenbestez, 39/2015 Legearen 119.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, deklaratu behar dugu dagokion errekurtsuak ez direla onartuko, eta, hortaz, ez dela bidezkoa errekurtsu horietan proposatutako alegazioen mamia aztertzea.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU:

Ez onartzea***** jaunak eta***** jaunak *“hauteskunde-batzordearen hauteskunde-batzordearen 03/2016 zenbakiko aktaren aurka jarritako errekurtsuak. Akta horretan Bizkaiko Boxeo Federazioaren Batzar Nagusirako aurkeztutako hautagaiak behin-behineko onartu ziren eta hamabost hautagai behin-behineko onartzeko erabakia hartu zen, hainbat estamentutan banatuta: klubak, kirolariak, teknikariak eta epaileak (...).”*

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsua aurkez dezakete Kirol



Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 22a.

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea